

7. BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroekin harremana sortzeko eta sustatzeko hainbat aspektu zaindu beharko ditugu, esate baterako; aplikazio ekologiko hau, unero eguneratuta mantendu behar dugu eta eguneratze hauei dagokienez, gure enpresaren oinarrizko jardueretako bat izango da hauek gauzatzea eta planifikatzea aplikazioa erakargarri mantentzeko eta bezeroen interesa ez galtzeko. Puntu hau bereziki lotuta doa gure aplikazioaren diseinuari.

Horretaz gain, arazoan aurrean hauek konpontzeko eta hauei aurre egiteko gai garela erakutsiko diegu gure bezeroei, baliabide eta alternatiba desberdinak adieraziz.

Aipatutako aspektu horretaz gain, honako aplikazio honen bitartekari erakunde publikoak ditugula kontuan hartuz (eskolak, ikastetxeak edota zahar etxeak), honako hauen laguntzarekin ere ekarriko ditugu bezero berriak, produktuaren berri eman dezaketelako alegia, hauen eskutik ere laguntza jasoaz aplikazio eta zerbitzuaren ebaluazio fidagarri bat egiteko orduan.

Bezeroekin hainbat harreman mota izango ditugu:

Batetik, **zerbitzua automatizatua** izango da. Hau da, hasieran automatizatua izango da, ez dugulako kontaktu fisiko ez pertsonala izango bezeroekin.

Baina ondoren, **pertsonalizatua** izan daiteke, bezeroen arabera, adibidez foroan bidez... Aplikazio honen baitan, foro bat irekiko dugu eta bertan bezeroak gurekin harremantzeko aukera izango dute modu pertsonalizatuagoan. Aurrera begira, bezeroek eskatuz gero aukera egongo litzateke ikastaroak antolatzeke bazkideen interesaren arabera. Adibidez, sukaldaritza ikastaroak, elikadura ezberdinen inguruko ikastaroak, jakien propietateei buruzko ikastaroa...

Bestetik, **laguntza pertsonala** dugu. Bai guk jasotzeko zein emateko ere. Nola jasotzen eta eskaintzen dugu laguntza pertsonala? Gurekin lan egiten duten baserritarrak, nutrizionista eta dendariek elkarlanean, garaiko produktuez jasotzen dugun informazioa bilduz eta gure bezeroekin partekatuz.